

OIHARTZUNA



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018

Biba Zientzia!
Ciencia Viva



3 zenbakia

OIHARTZUNA

Zientzia eta Teknologia Fakultatearen albistegia

2026ko apirila
3 zenbakia

IKERKETA, IKERTZAILE ETA IKERTZAILEEI BURUZKO INFORMAZIOA



Gaur ateratzen da Zientzia eta Teknologia Fakultateko **Oihartzuna** informazio-albistegiaren hirugarren alea, gure ikertzaileek azken urtean izan dituzten lorpenak ospatzeko, askotariko edukiekin: biomedikuntzan egindako aurrerapenetatik hasi eta iraunkortasunerako irtenbide teknologikoetaraino.

Oihartzuna albistegiaren hirugarren ale honek Zientzia eta Teknologia Fakultatearen azken urteko emaitzak erakusten ditu, eta nazioartean ospe handia duten hainbat sari nabarmentzen ditu, hala nola, ikasleentzako sariak eta doktorego-tesi aitzindariak, ezagutzaren eta dibulgazioaren transferentzian izandako arrakastak, eta nazioko eta nazioarteko rankingetako graduen eta ikerketaren posizio altua.

Albistegi honen bidez, Fakultate gisa sentitzen dugun harrotasuna berresten dugu irakasleen eta ikertzaileen lan isil honengatik eta gizartearen aurrerabidean eta hobekuntzan duen proiektioagatik.

Aipamen hauek irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, baita Fakultateko lanarekiko dugun harrotasuna partekatuz ere.



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGIA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018
Biba Zientzia!
Ciencia Viva




Rojo gori-gori

Laugarrenez, Clarivate Analyticens adimen analitikoak *Teofilo Rojo* irakaslea, Kimika Ez-organikoko katedraduna eta EHUKo irakasle emeritua izendatu du munduko ikertzailerik aipatuenetako bat, 2024ko zerrendaren arabera. Clarivate Analytices-ek egindako “**Highly Cited Researcher**” aitorten hori bere argitalpen zientifikoak Kimika Ez-organikoaren eta energia biltegitratzeko materialen arloan gehien aipatzen den % 1en artean identifikatzean oinarritzen da.

Antonio Gómez Muñoz

Biokimika eta Biologia Molekularra saileko katedraduna **Sphingolipid Clubeko Ohorezko Kide** izendatu dute, *esfingolipidoak* ikertzen dituen Europako elkarterik zaharrena izanik. Bere ibilbide nabarmenagatik eta 2005etik egindako ekarpenagatik ezaguna, irakasleak hantura- eta tumore-prozesuen erregulazioa ikertzen du.



2024ko doktorego-tesi onenaren saria

Carlos Uriarte aurkeztutako doktore-tesiak: “*Solving partial differential equations using artificial neural networks/Deribatu partzialetako ekuazioen ebazpena neurona-sare artifizialen bidez*”, **doktore-tesi onenaren saria** jaso du 2024ko Zientzia Aplikatuetako Konputazio Metodoen Europako Erkidegoan, ECCOMAS, SEMA Matematika Aplikatuko Espainiako Elkartearen eta SEMNI Ingeniaritzako Zenbakizko Metodoen Espainiako Elkartearen.



OIHARTZUMA

Europar Batasunaren Saria Herritartasunaren Zientziari

"Atención! ¡No me aplastes!/Kontuz! Ez nazazu zapaldu! KENZ"-ek, ZTFko eta PiEko irakasle eta ikertzaileek bultzatua, **Ohorezko Aipamena** lortu du Europar Batasunak 2025eko Herritarren Zientziari ematen dizkion sarietan. Sari hauek Europan aurrerapen zientifikoa eta onura soziala bilatzen duten ekimenak aitortzen dituzte, herritarrak aktiboki inplikatzeko dituzte eta gizarte zibil irekia eta inklusiboa sustatzen dute.



Javier del Ser

ZTFko Matematika saileko aparteko ikertzailea eta Tecnaliako ikertzailea, Clarivatek egindako **Highly Cited Researchers 2025** zerrendan mundu mailan gehien aipatzen den zientzialarietako bat izan da. *Javier del Ser* da rankingean dagoen Euskadiko ikertzaile bakarra Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala kategorian. Bere ikerketa Adimen Artifizial Aplikatuaren garapenean eta ikaskuntza automatikoko teknikan oinarritzen da, sektore estrategikoetan modelizazio- eta optimizazio-arazo errealak konpontzera bideratuak.

Etorkizuneko Gauss bat

Javier Belausteguigoitia saritu dute **Simon Marais Mathematics Competition** unibertsitateko ikasleei zuzendutako matematika-lehiaketa ospetsuan. Matematika Graduako bigarren mailako eta Fisika Graduako lehen mailako ikaslea da. Banakako sailkapenean lehen 15 onenen artean kokatu da eta Estatuko lehen sailkatua izan da. Aurten, besteak beste, Londresko King 's College eta University College unibertsitateek parte hartu dute, baita Madrilgo eta Bartzelonako unibertsitate autonomoek ere.



OIHARTZUMA



Eduardo Angulo omenaldia

Zoologia eta Biologia Zelularra sailak *Eduardo Angulo* irakasle ikertzailearen oroimenezko ekitaldia antolatu zuen. Espainiako Biologia Zelularreko Elkarteko ohorezko kidea izateaz gain, erreferente akademiko eta ikertzailea, beste gauza askoren artean. *Eduardo Angulo* pertsona maitagarria zen, eta 40 urte baino gehiago irakaskuntza, ikerketa eta unibertsitate-kudeaketan aritu ondoren, oroitzapen maitagarria utzi du bera ezagutzeko ohorea izan zuten guztien artean. Ekitaldi hunkigarria Zientzia eta Teknologia Fakultateko laborategi bati plaka bat jarriz amaitu zen.

Marisa Fernández Rodríguez in Memoriam

Marisa Fernández Rodríguez gure lankidea azaroaren 18an hil zen bere jaioterriko Ourensen. *Marisa* 1986an sartu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, Matematika Sailean Geometria Diferentzialeko katedradun bezala. *Marisak* Geometriaren eta Topologiaren arloko ikerketatila berri bat sartu zuen EHUUn, eta ehunka ikaslek barietate bereizgarri bat edo Lieren talde bat zer den ikasi dute. *Marisak* mintegiak eta kongresuak antolatu zituen, eta horiei esker, herrialde askotako ikertzaile ospetsuak etorri ziren gure unibertsitatera. Horrez gain geratuko zaigu, bere egun amaigabeen oroitzapena (Fakultatea egunero "ixten" zuen), saileko korridoretan zehar egiten zituen oinkada sendoak bere paper, kafe, zigarro eta abarrekin eta bere galiziar doinu paregabe eta politarekin. ***Deus eam in gloria sua habeat!***






Zientziatik enpresara



Ezagutza transferitzeko **Handira Jo** sari gehienak ZTFko ikertzaileek jaso dituzte. Sari hauen helburua doktorego-tesietatik eratorritako ekimen ekintzailea bultzatzea eta aitortzea da. 15 hautagai aurkeztu dira sarietarako, eta horietatik bost ZTFkoak. Lehen saria **Javier González Condek** jaso zuen, Kimika Fisikoa saileko Konputazio Kuantikoko doktorea. Bere tesiaren izenburua honako hau da: «*Algoritmos cuánticos para ecuaciones diferenciales*



en finanzas y física». Hirugarren saria **Adriana González Benitorentzat** izan zen, Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia sailekoa. Bere tesiaren izenburua honako hau da: «*Desarrollo de herramientas moleculares basadas en las interacciones entre la microbiota y el huésped y su posible aplicación en el cáncer colorrectal y otras patologías*». Tesi sortzaile eta berritzaileenaren akzesita Kimika Analitikoa saileko **Jennifer Huidobro Martinek** jaso zuen. Bere lana: «*Exploración de la geoquímica marciana*

y lunar mediante el estudio de meteoritos, análogos, simulaciones de laboratorio y análisis de datos de misiones».

2026ko Batxilergoko Sari Berezia

Saritutako lau bizkaitarretatik bi, **Daniel Blasi** eta **Ugaitz Zabala**, gure Fakultatean matrikulatu dira. **Daniel Blasi** Fisikako 1. mailan matrikulatu da. 18 urte ditu eta Andra Marin (Getxo) bizi da. «*Amets handiak eginez, Europako Espazio Agentzian edo NASAn lan egitea gustatuko litzaidake*». **Ugaitz Zabala** Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa gradu bikoitzean matrikulatu da. 18 urte ditu eta Sopelan bizi da. «*Unibertsitatean irakasle lanetan ikusten du bere burua, eta espazioaren mundua ere interesatzen zaio*».





Jon Asier Bárcena

Matematika saileko irakaslea, 2025eko urtarrilaren 13an Espainiako Matematika Erret Elkartearen Gobernu Batzordeko kide hautatu zuten. Era berean, *Barcena* irakaslea "European Mathematical Young Academy" elkarteko kide izendatu dute 2026-2029 aldirako.

Marta Macho, Raúl Ibáñez eta Pedro Alegría

Matematika saileko irakasleak 2025eko urtarrilaren 17an izendatu zituzten "Lemniskata Goerriko Zientzia Sare Herrikoia Kultur Elkartearen" ohorezko bazkide. Izendapen horrek ezagutza matematikoa eta zientifikoa zabaltzen egindako lan handia aintzatesten du, argitalpenen, hitzaldien eta hezkuntza-proiektuen bidez.



ENTZUTE ETA ERANTZUTE SAREKOA NAIZ. LAGUNTZA BEHAR DUZU?



Jardunbide Egokien Lehen Saria 2025

Espainiako unibertsitateetako Informazio eta Orientazio Zerbitzuen XXV. Topaketetan EHUko Zentroen Entzuteko eta Erantzuteko Sareak lortua. Sare horretan Fakultateko 18 kidek hartzen dute parte, eta Sarea osatzen duten ikastetxeetako erreferente eta

laguntzaile guztien — irakasleak, administrazioko langileak, teknikariak eta ikasleak — konpromisoari eta dedikazioari esker lortu da aintzatespen hori, ikaslearen arretan funtsezko lana eginez, bereziki egoera ahulenean daudenena.




Félix Goñi

Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiako eta Bilboko Elkarteko **Dr. José Carrasco-D. Máximo de Aguirre saria** jaso du, Biokimikaren, Biologia Molekularren eta Biofisikaren ikerketan eta irakaskuntzan egindako nazioarteko ibilbide profesionalagatik. Bere ikerketa-lana zelula-mintzetako elkarreragin molekularretan oinarritu da.

María Jesús Irabien

Geologia saileko irakaslea, **berdintasunaren arloan egindako ibilbide profesional eta ikertzaile luze eta onuragarriagatik omendua** izan zen, martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunean. *Irabien* irakaslea 2009an eratutako Zientzia eta Teknologia Fakultateko lehen Berdintasun Batzordeko presidentea izan da. 2012tik urtero Bidebarrieta Kulturgunean egiten den «Emakumeek zientzia egiten dute/Ellas hacen ciencia» hitzaldi-zikloaren antolatzaileetako bat da, eta Emakume Ikertzaile eta Teknologoen Elkarteko kidea.

8 Martxoak
Marzo
**EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO EGUNA**
DÍA INTERNACIONAL
DE LA MUJER



Gontzal Lezcano Castillo

Ingeniaritza Kimikoan graduatua, **bigarren sari bat** lortu du Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarrean, Unibertsitateetako idazkari nagusiaren 2024ko abenduaren 13ko Ebazpenean jasotakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, **Unibertsitate Hezkuntzako Karrera Amaierako Sari Nazionalak** eman zitzaizkien 2017-2018 ikasturtean ikasketak amaitu dituztenei.

OIHARTZUMA



Ekipo matematikoa

Hirugarren postua lortu du **2024/2025 Liga Matematikoan**, Oviedon ospatutako Matematika Ikasleen Elkarte Nazionalak antolatutakoa. Taldea honako ikasle hauek osatzen zuten:

Maialen Monasterio Uriarte, Fisika Gradua, 2. maila, euskara; *Beñat Pérez Araujo*, Fisika Gradua, 3. maila, euskara; *Aimar Alvarez Etzarri*, Fisika Gradua, 3. maila, euskara; *Ibai Martínez Puente*, Matematika Gradua, 2. maila, euskara; *Emma Lozano Hernández*, Matematika Gradua, 2. maila, euskara; *Garikoitz Cassi de Bustos*, Matematika Gradua, 1. maila, gaztelania; *Andoni Ortuzar Eguino*, Fisika Gradua, 3. maila (euskara) eta Matematika Gradua, 4. maila (gaztelania).

Fernando Plazaola Muguruza


Fisika Aplikatuko katedraduna eta Elektrizitate eta Elektronika saileko kidea **Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko osoko kide izendatu** zuten Azkoitiko Intsausti jauregian, 2025eko maiatzaren 3an. Bere sarrera ikasgaia hau izan zen: "Unibertsoa: Bere Ezagutzaren Eboluzioaren Historia". José Manuel Barandiarán González jaunak, EHUKo katedradun emerituak, egin zion harrera.



Jon Lafuente

Fisika saileko irakasleak, "**Volker Heine**" **Early career investigator award** saria Ikertzaile Gazteentzat jaso zuen. Sari honek pertsonak saritzen ditu Psi-k misio-adierazpenak estalitako arloetan egindako lan konputazional nabarmenagatik ("... materialen propietateak eta funtzioak ulertzeko, iragartzeko eta diseinatzeko oinarritzko teoria, algoritmoak eta ordenagailu-kodeak garatzea").






Amaia Arruabarrena-Aristorena

Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia saileko ikertzaile gazteak ekainaren 18an, 2025eko Euskadiko emakume ikertzaileei aintzatespena egiteko ekitaldian, **Eusko Jaurlaritzaren eta Ikerbasquen saria Starting kategorian** jaso zuen bularreko minbiziaren metabolismoaren eta erregulazio epigenetikoaren arteko loturari buruzko ikerketengatik. 2023an L'Oreal-Unesco Saria jaso zuen.



Erregina-bikotea

Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenak (CSIC) eta Kataluniako Komunikazio Zientifikoaren Elkarteak (ACCC) Momoto gorgiazul, arriskuan dagoen espeziea (*Aspatha gularis*) eta Karramarro urdinaren



Emea lanak saritu dituzte "Ilustraciencia" nazioarteko lehiaketaren 12. edizioan, Ilustrazio Zientifikoa Master Propioko Susana García eta Oceania Matilla ikasleek aurkeztutako lan horiek. Lehiaketara aurkeztutako ia 600 proposamenetatik, lan horiek Madrilén Natur Zientzien Museo Nazionalean inauguratu den erakusketa ibiltarian parte hartzeko aukeratu diren 40 lanen artean daude.

Elena Vecino

Suediako Medikuntza, Zientzia eta Teknologia Errege Akademiako kide izendatu dute. Sarrera ekitaldia Lundeko Gran Hotelean (Suedia) egin zen 2025eko urriaren 8an. 1988an egin zuen dokortatu aurreko lehen egonaldia, *European Science Foundation*en beka batekin. Harrezkero, lan-kidetza estua izan du Lundeko Unibertsitatearekin, eta bi herrialdeen arteko ikertzaileen trukea erraztu du.





Jose Manuel Barandiaran

Elektrizitate eta Elektronika Saileko katedradun emeritua **Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko zuzendari izendatu dute** urteko batzar nagusian, Azkoitiko Intsausti jauregian.

Ana Zubiaga

Biologia eta Genetikako katedraduna, **Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiaren Biologiako Ohorezko Aipamena** jaso zuen. Ekitaldia Zientzia Medikoen Akademiaren ikasturtearen amaieran izan zen.



Izortze Santin Gómez

Biokimika eta Biologia Molekularra sailekoak **AstraZeneca Fundazioaren Ikertzaile Gazteen IX. Sariaren lau sarietako bat** jaso du, 2 motako diabetesari buruzko "SYNERGYxDM2" proiektuagatik. Proiektuak konbinazio terapeutiko berriak bilatzen ditu, 2 motako diabetesaren kontrola hobetzeko eta konplikazioak murrizteko, paziente horien osasuna hobetzeko estrategia berritzaile eta pertsonalizatuen bidez.



OIHARTZUMA



2025eko SHANGAIKO RANKINGa

Ingeniaritza Kimikoa munduko lehen 101-150en tartean dago oraindik, eta estatuko lehena da. *Nanozientziak eta Nanoteknologia, eta Kimika*, munduko 151-200 tartean daude. *Zehazki, Kimika* estatuko lehena da, eta Europako 7.aren eta 15.aren artean dago. Bestalde, *El Mundo* egunkariak eskari handieneko 50 graduen urteko Rankinga argitaratu du, Estatuko 5 unibertsitate onenetarikoena. Eskari handiena duten lehenengo bosten artean daude honako Fakultateko graduak: *Ingeniaritza Kimikoa Gradua* (Estatuko bigarren onena) eta *Kimika Gradua* (Estatuko hirugarren onena).

Alberto Magno literatur lehiaketako lehen saria

Gure fakultateak antolaturiko Alberto Magno zientzia-fikziozko literatur lehiaketaren 37. edizioko epaimahaiak, 2026ko urtarrilaren 23an, *Raúl González del Águilaren* (Almería) "Instrucciones para forjar un héroe" kontakizunari eman zion **lehen saria**. **Bigarren saria**, "ex equo", *Jorge Juan Codina Ripollen* (Alacant) "Hijos de la quietud" eta *Javier Castañeda de la Torreren* (Madril) "Apuntes sobre el arte de viajar en el tiempo" kontakizunek banatu zuten. Era berean, **finalista** izendatu zuten *Leire Enzunza Atxaren* (Bizkaia) "Mila Aurpegi Berri" kontakizuna.



Batekoen pokerra

Zientzia eta Teknologia Fakultateko lau ikaslek **lehen eta bigarren sariak jaso dituzte 2024ko sari nazionalen deialdian**, 2025eko urriaren 24an. Unibertsitate Hezkuntzako Karrera Amaierako Sari Nazionalak unibertsitateko ikasleen errendimendu akademikoa sustatu eta aitortu nahi dute, beren ikasketetan errendimendu akademiko bikaina erakutsi duten ikasleak bereiziz.

Hauek izan ziren lau sarituak:

Alberto Echevarria Poza, Bioteknologia gradua, **lehen saria**.
Amaia Ochandorena Saa, Biokimika eta Biologia Molekularra gradua, **bigarren saria**.
Eta *Ingeniaritza Elektronikoa* graduan, ikasle hauek nabarmendu ziren: **lehen saria**, Sara Fernández Uría, eta **bigarren saria**, *Alberto Hijano Mendizábal*.

OIHARTZUMA